

Laudion, 2024ko otsailaren 15ean

Gobernu Taldeak etsipena agertu du Osasun Sailburuarekin izandako bileraren ostean

EH Bildu-Omniak herriko anbulatorioko arreta medikoari buruzko kezka helaraziko die Aiaraldeko inguruko udalerrietako alkateei, erantzun instituzional koordinatuak aktibatzeko asmoz

Atzo, Gobernu Taldeak bilera izan zuen Bilbon Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Saileko sailburuarekin, Gotzone Sagarduirekin, sailburuaren kabineteburuarekin, Imanol Zuluaga Zamalloarekin, eta Osakidetzako zuzendariarekin, Rosa Pérez Ezquerdorekin, tokiko anbulatorioaren egungo egoera aztertzeko eta zentroan laguntza medikoa bermatzeko. Bileran Ainize Gastaka alkatea, Álvaro Barrios lehen alkateordea eta Nagore Gomara Zeharkako Politiken zinegotzia izan ziren.

Bileran zehar, Gobernu Taldeak bere kezkak hiru planteamendutan oinarrituta azaldu zituen: Etengabeko Arretako Gunean (EAG) medikuen presentzia bermatzea, pertsonal medikurik ez dagoenean herritarrei behar bezalako informazioa ematea, eta Osakidetzarekin hitz egiteko lerro bat ezartzea, Laudiorako proiektatutako anbulatorio berrian giza baliabideen eta zerbitzuen hornidura egokia bermatzeko.

Tamalez, Osakidetzako arduradunek eskaera horiei ez erantzutea erabaki zuten, gobernu-taldearen jarrera berrestuz EAGn medikuen presentzia bermatzeari begira. *"Laudion eta eskualdean zerbitzua ziurtatu behar dugu. Erreferentziazko anbulatorioa izango gara eta osasun langileez gain medikuen presentzia bermatu behar dugu"*, azpimarratu du Ainize Gastaka alkateak.

Gobernu Taldearen aburuz, bileraren emaitza ez zen espero zena izan. Horregatik guztiagatik, tokiko anbulatorioko arreta medikoari buruzko kezka helaraziko die Aiaraldeko inguruko udalerrietako alkateei, erantzun instituzional koordinatuak aktibatzeke asmoz. Horretarako, bilera bat deituko da datozen egunetan.

Arabako Sendagileen Elkargoari ere kezka helaraziko zaio. Izan ere, atzo bertan, elkargoa kezkatuta agertu zen Osasun Administrazioak urtarrilaren 12an Laudion gertatutakoari emandako erantzunaren ostean.

Bi foroetako egoera kontrastatu ondoren, Udalak bere ondorioak helaraziko dizkie herritarrei, ekimen berriak aktibatzeke. *"Mediku eta osasun-langile nahikoak dituen sistema publiko indartsu bat nahi dugu. Helburu hori lortzeko ekintzak eta neurriak landuko ditugu"*, amaitu du alkateak.